

EAEKO 2019RAKO AURREKONTUAK

Azterketa eta proposamenak

2018ko azaroa



AURKIBIDEA

Aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak	5
Aurrekontu egonkortasunerako esparrua	7
Gastuen aurrekontua kapituluka	7
Gastuaren sailkapen funtzionala eta gastu sozialaren bilakaera	8
Ondorioak	10

Aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak

Datorren kurtsorako baliabideak sarreren osagai nagusien bilakaeraren menpe daude:

- Foru aldundien ekarpenak; 631,8 milioi egin dute gora (+%6,6).
- Hala ere, zor publikoaren emisioaren baliabideak behera egin du, eta horrek 279,4 milioiko murrizketa ekarriko die gastuen disponibilitateei.

Azkenean, Eusko Jaurlaritzaren baliabideak 11.784, 1 milioi eurokoak izango dira guztira, 2018rako adostutako aurrekontua baino 297,7 milioi gehiago, hau da, %2,6 gehiago.

Hala ere, testuinguru ekonomikoari dagokionez, BPGaren %3,7ko areagotze nominal bat aurreikusi dute. Hortaz, 2019rako Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoak BPGak baino gutxiago egin du gora, ekonomia osotara hartuz pisua galduz.

Aurreikuspen hauek betetzekotan, 2019an BPGaren %14,8a izango da sektore publikoaren gutxigorabeherako pisua. Aurrekontu likidazioaren datuei dagokionez, portzentaia hau 2013an egindako gastuak izandako berbera da.

Haiek izan ziren Urkulluren lehen aurrekontuak eta haiek ere "historiako sozialenak" bezala izan ziren salduak. Gobernuaren ahalegin ekonomikoa, gastu-politikak finantzatzera bideratutako aberastasunaren portzentaia bezala neurrita, ez da ordutik aldatu. Baina beheranzko joera argia erakusten du 2009ra arte egiten badugu atzera.

Gogoratu beharra dago, 2009an, gobernu autonomikoak gauzatutako gastua BPGaren %15,8ra iritsi zela. Egia da ere BPGaren txikiagotzeak lagundu zuela Gastu osoa/BPG ratioa areagotu zedin gehieneko kopuru horretara iristeko.

Hala ere, garrantzitsua da gogoratzea 2011 eta 2012an eskuduntza berrien eskualdatzea adostu zutela, eta hemen enplegurako politika aktiboak nabarmentzen dira; aurrekontuetan presentzia sinbolikoa zuten lehen, Estatuak bere gain hartutako arloa zelako. Honek ahalbidetu zuen gobernu autonomikoak gastuen aurrekontuetara bideratutako baliabideak handitzea.


Aurrekontua artifizialki puzteko garaian ere zerikusia izan du Estatuako Administrazioarekin sinatutako lankidetzak akordioak, euskal Y izenekoa eraikitzeko. Azpiegitura hau Estatuaren eskuduntza da; hala ere, Eusko Jaurlaritzak obraren zati bat gauzatzen du, beharrezkoak diren partidak bideratuz. Ondoren, Madrilgo Administrazioak diru hori itzultzen du, Kupotik deskontatu eta gero.

Gauza bera gertatzen da Hegoaldeko Saihesbidearekin. Proiektu hau, baina, ez da tamaina horretakoa.

2019ko aurrekontu proiektuak 99,4 milioiko partida bat eta 3,9 milioiko beste bat jasotzen ditu euskal Y izenekoarentzat eta Bilboko tren saihebiderearentzat, hurrenez hurren. 2018arekin alderatuta, 58 milioi gutxiago dira, baina, azken batean, aurrekontuetako kredituak atxikitze modua da obren benetako erritmoa kontutan hartuta.

Bestalde, kontutan hartu behar da zorrak eragindako finantza zama 1.331 milioikoa izango dela; horietatik 1.098 zorra amortizatzen/itzultzeko bideratuko dira (2018an baino 15,5 miloi gutxiago) eta 233, interesak ordaintzeko.

BPGren portzentaiaren arabeko gastuaren bilakaera, Eusko Jaurlaritzaren eskutik (sortutako aberastasuna)



OHARRA: 2017 arteko aurrekontuen gauzatzearen datuak. 2018rako adostutako aurrekontua, eta 2019rako aurrekontu proiektua. Iturria: LABek eginda, Eusko Jaurlaritzaren eta Eustat-en datuetan oinarrituta.

Grafikoan ikus daiteke sektore publiko autonomikoak galdutako pisua ekonomian, eta hori gertatu da, gainera, zorpetzea erabili denean beste sarreraren murrizketa ordezkatzeko, zergadun jatorrikoak bereziki (Foru Aldundien ekarpenak).

Pisu galera hau are eta sakonagoa da sailek gobernuaren ekintza aurrera eramateko baliatutako baliabideak kontutan hartuz gero, zor publikoak eragindako ordainketak deskontatu eta gero. Hain justu, zorraren zama deitutakoaren beste ondorietako batzuk dira hauek.

Zorpetzea baliatzea egokia eta ezinbestekoa da zenbait egoeratan, noski; zerbitzu publiko eta sozialak egoki mantentzeko tresna gisa. Baina, bere erabilerak badu ondoriorik, kostu bat badu. Eta, azkenean, eragina izango du etorkizunean, politika publikoak finantzatzeko baliabideak ahulduko dituelako.

Hortaz, babes sozialaren inguruko gabeziak zuzentzea ahalbidetuko duen sektore publiko bati eusteko arazoei, eta hazten ari den oinarrizko zerbitzu publikoen beharra asetzeari eman beharreko erantzuna zerga-politika ausart eta birbanatzaileago baten eskutik etorri beharko da.

Zentzu honetan, gogora ekarri behar dugu EAEko presio fiskalaren BPGren %30,4an kokatzen dela; Europar Batasuneko batazbestekoa %38,9koa eta eurogunekoa %40,1ekoa dela.

Aurrekontu egonkortasunerako esparrua

Estatuarekin adostutako defizit helburuak (BPGren %0,1 PSOEren gobernuak proposatutako eta Bruselak onartutako doikuntzaren bide berria onartzen ez den bitartean) 80 milioi eurotako aldea ahalbidetzen du sarrera eta gastuen artean. Hala ere, gobernuak aurrekontu oreka duen proiektua aurkeztu du 2019rako. Egia esan, eta kontabilitate nazionalaren arabera¹, 5 milioi eurotako superávit txikia aurkezten du.

Honek esan nahi du gobernu autonomikoak bazuela tartea gastua 80 edo 85 milioi euro gehiagotan handitzeko. Eta beste 160 milioi gehigarri izango lirateke azkenean defizit helburu berriak onartuko balira, BPGaren %0,3koak autonomía elkartetarako.

Baina gobernuak are mugapen exigenteagoarekin egin du aurrekontu orokorren proiektua, gastu-arauarekin hain zuzen ere. Honek %2,7an kokatzen du gastu publikoak izan dezakeen gehienezko hazkundera (horretarako zenba daitezkeen gastu ez finantzieroko kontuan hartuta eta ziklo ekonomikoarekin lotura handiagoa duten bestekoa gastuak kanpoan utzita).

Era berean, aurrekontu egitasmo honek BPGaren %13,2ko zorraren helburua dauka, %13,8koa zenean 2019rako Estatutarekin adostutako helburua.

Gastuen aurrekontua kapituluka.

Aipatu dugu honezkero 2019rako aurrekontua 11,784,1 milioi eurotako dela, 2018an baino 297,7 milioi euro gehiago. Baina kontuan hartu gabe zorra amortizatzerako bideratutako gastuaren bilakaera eta Euskal Y eta Hegoaldeko Saihesbideari esleitutako zenbatekoak kontuan hartu gabe, 371 milioitakoan izango litzateke aurrekontuaren igoera (%3,6 gehiago).

Pertsonal Gastuena da aurrekontuen hazkunderaren zatirik handiena suposatzen duen kapitulua. Zehazki, 2018an baino 102 milioi gehiago izango dira, %4,9ko igoera suposatzen duena 2.175,6 milioi euroetaraino. Kapitulua honek gastuen aurrekontu osoaren %18,5 suposatzen du. 2018an %18,1ekoa zen portzentaia hau.

¹ Kontabilitate nazionalako irizpideak eta aurrekontuetako metodologia ez datoz bat sarrera eta gastu ez finantzieroko baloratzerakoan.

Hala ere, gobernuak proposatutako soldata-igoera gauzatzea Estatuko Aurrekontu Orokorrekin gertatzen denaren araberakoa izango da.

Gastuaren sailkapen funtzionala eta gastu sozialaren bilakaera

Sailkapen funtzionalaren arabera politika hauen jasotzen dira Gastu Sozialaren barruan: Segurtasuna eta Babes Soziala, Jendarte-Sustapena, Osasungintza, Hezkuntza, Etxebizitza eta Hirigintza, Ongizate Komunitarioa, Kultura, Euskararen Sustapena eta Beste Zerbitzu Komunitario eta Sozial batzuk.


2019rako aurreikusita dago norabide sozialeko politiketara 8,137,7 miloi euro bideratzea, 2018rako onartutako eta oraindik exekutatzeko dagoen aurrekontuan baino %3,5 gehiago. Hortaz, aurrekontu-likidazioen zifra ofizialei itxaron beharko zaie partida horien benetako bilakaera ikusteko.

Zenbateko horrek gastuen aurrekontu osoaren %69a baino zerbait gehiago suposatzen du, Baina zor publikoaren gastuetara bideratutako partidak kentzen baditugu, gastu soziala sailek politika publikoetara bideratutako gastuaren %77,9 izango litzateke.


Datozen grafikoetan ikusten da beheranzkoa dela gastu sozialaren bilakaera, bai politika sozialetara bideratutako gastu osoaren portzentaiari begiratzen badiogu bai sortutako aberastasunaren portzentaiari begiratuta.

2009an, murrizketa handiek aurretik, 7.610 milioi euro bideratzen zen gastu sozialetara. Zifra hau eguneratzen badugu, ordutik hona prezioen bilakaera orokorrak %13 baino gehiagoko hazkundera izan duela kontutan hartuta, 8.600 milioi euroren ingurukoa litzateke kopurua, 2019ko aurrekontuan baino 462 milioi gehiago.

Eusko Jaurlaritzak politika sozialetara bideratzen duen gastu guztiaren portzentaia (%)



Eusko Jaurlaritzaren gastu sozialaren bilakaera BPGarekiko (%)



OHARRA. 2017rainoko aurrekontu-exekuzioaren datuak. 2018rako onartutako aurrekontua eta 2019rako aurrekontu-proiektua.

Iturria: LABek egina Eusko Jaurlaritza eta Eustat-eko datuetan oinarrituta.

Gainera, 2009an egindako gastu sozialarekin konparazio homogéneo bat egiteko kontutan hartu beharko lirateke 2011 eta 2012 artean jendarte-arloko gaitan hartutako kompetentzia berriak hartu beharko lirateke kontutan.

Kompetentzia horiei lotutako kostea 461 miloita da. Kompetentzien traspasoaren aurretik politika hauen ez zeuden gobernu autonomikoaren kudeaketaren barruan, eta ondorioz, ezta ere aurrekontuaren barruan ere.

Bestalde, nazioarteko konparaketak ere ez du oso leku onean uzten Eusko Jaurlaritzak zerbitzu sozial funtsezkoetan egiten duen ahalegina.

2019rako aurrekontu proiektuaren arabera BPGaren %4,8koa izango da Osasungintzan egindako gastua. Eta Hezkuntzara %3,5 bideratuko da. Portzentaia hauek Europako parametroen azpitik dauden, eta politika sozialean aurreratuenak dauden herrien oso atzetik.

Gastu publikoa funtzio ekonomikoen arabera, BPGaren portzentaia (%)

	EB-28	Eurogunea	Danimarka	Frantses estatua	Espainiako estatua
Osasungintza	%7,1	%7,1	%8,6	%8,1	%6,0
Hezkuntza	%4,7	%4,6	%6,9	%5,4	%4,0

Iturria: Eurostat

Ondorioak

- Aurreko urteen bide beretik doazen aurrekontuak dira. Ez dira aurrekontu burujabe sozial ez parte hartzaileak.
- Aurrekontu hauek ez dute balio errealitate soziala aldatzeko. Ez dute ditugun erronka ekonomiko eta sozialei aurre egingo dien sektore publikoa ez eta politika publikorik bermatzen
- Ez dira sortzen den aberastasuna hobe birbanatzeko aurrekontuak izango. BPGrekiko gastu sozialen bilakaera murriztuz doa.
- Aurrekontuen eztabaida ezin da gastuen eztabaidara mugatu. Zerga politika aldatu eta sarrera gehiago egoteko aukerari uko egiten zaio, patronalaren nuerrira eginiko zerga politika dagoelako hemen.
- Zerga iruzurrari aurre egin eta zerga politika progresiobago baten alde egin behar da. EAJ, PSE, PPren artean eginiko azken zerga erreforma bertan behera uztea eskatzen dugu eta zerga politika berri baten aldeko eztabaida soziala aldarrikatzen dugu.
- Politika publikoetarako eta gastu sozialerako dirua mugatzen duten aurrekontuak dira. Gastu topea onartu eta zorra ordaintzeari lehentasuna ematen zaio.
- Europako beste herrialde batzuekin alderatuz, argi ikusten da zerbitzu sozialetara bideratzen den dirua ez dela nahikoa.
- Ez dira aurrekontu parte hartzaileak izango. Eztabaida sozialari uko egiten zaio

LABek dauden behar sozialei erantzuteko lehentasunezko neurri hauek eskatzen ditu

- Enplegua duintzeko aurrekontuak
 - Behar sozialei aurre egiteko aurrekontuak
 - Sektore publikoan enplegua egonkortzera bideratutako aurrekontuak
 - Industria politika eraginkor baterako aurrekontuak
-